

Urteko/zikloko programazio didaktikoa

Programación didáctica anual/de ciclo

IKASTETXEA:	ABADIÑO BHI	KODEA:	015071
ETAPA:	DBH	MAILA:	4. Maila
IRAKASGAIA:	INGELES		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia.		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUA	Gizarterako eta herritasunerako kompetentzia		
IRAKASLEAK:	BEATRIZ BARRIOLA AYERDI	IKASTURTEA:	22-23

Zeharkako kompetentziak:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>critérios de evaluación</i>
<p>1.- Eskola-eremuko komunikazio-egoeretan norberaren gaitasun-mailarekin eta interesekin estu lotuta sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.</p>	<p>1. Ahozko testu laburrak edo ez oso luzeak ulertzea eta interpretatzea, testuinguruan jarriak eta ongi egituratuak, hainbat generotakoak eta hainbat euskarritan, argi eta astiro edo ez oso bizkor ahoskatuak, ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gai zehatzei buruzkoak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, zentzu orokorra eta ideia nagusiak jasoz, eta proposatutako lanerako informazioa hautatuz, betiere baldintza akustikoen mezua distorsionatzen ez badute eta esandakoa berriro entzun badaiteke.</p>
<p>2.- Bai ahoz eta bai idatziz modu gutxi-asko autonomoan espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua eta kooperazioa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkor, koherente eta egokian erantzuteko.</p>	<p>2. Ahozko testu laburrak eta hizkuntza soilekoak sortzea, ezarritako irizpideei jarraituz, eguneroko gaiei buruzkoak, interes pertsonalekoak eta akademikoak, hainbat euskarritan, hainbat helbururekin, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiz, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz.</p>
<p>3.- Atzerriko hizkuntzaren sistema linguistikoaz gogoeta egitea, eta modu gutxi-asko autonomoan haren erabilera-arauak aplikatzea testuak sortzeko eta ulertzeko, eta hizkuntza txukun erabiltzeko, hizkuntzen artean transferigarriak diren ezaguerak erabiliz.</p>	<p>3. Literatura gozamen- eta ikaskuntza-iturritzat hartzea, kulturara hurbiltzeko bidez, eta norberaren hizkuntza-ondarea nahiz mundu pertsonala aberasteko zubitatzat.</p>
<p>4.- Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko literatura-testu soilez gozatzea (ahozko literatura-tradizioarekin lotutakoez, batik bat), eta, hala, mundu zabaleko kultura-aniztasunaz jabetzea eta giza kondizioaz zertan den ulertzea, norberaren hizkuntza-ondarea aberastea eta sentsibilitate estetikoaren lantzea.</p>	<p>4. Modu kritikoan ulertzea eta interpretatzea idatzizko testuak, gero eta luzeagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak, aurrez landutako generoetakoak, hainbat euskarritan, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, eta zentzu orokorrari, ideia nagusiei eta bigarren mailako ideia batzuei igartzea.</p>
<p>5.- Oinarrizko ezaguera soziolinguistikoetan oinarrituta, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzea eta interpretatzea, eta horretan, den-denon kultura-ondarea aberasten duen aldetik, hizkuntza-aniztasunaren aldeko</p>	

<p>jarrerak lantzea, hizkuntzak jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat hartzea, eta ezin motatako balio-judizio eta aurreiritzi sustatzen duten estereotipo linguistikoak baztertea.</p> <p>6.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta modu kritikoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta kooperatzeko</p> <p>7.- Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, norberarenaz bestelako hizkuntzak ikasteen landutako komunikazio-ezaguerak eta estrategiak transferitzeko eta autorregulazioa sustatzeko.</p>	<p>5. Garrantziko informazio espezifiko aurkitzea eta hautatzea, irakurgaiaren helburua zein den kontuan hartuta.</p> <p>6. Idatzizko testuak sortzea, aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz eta modu gutxi-asko autonomoan, gero eta luzeagoak eta lexiko nahiz egitura aberatsekoak, hainbat generotakoak, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.</p> <p>7. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, komunikazio-trukearen arauak errespetatuz, gero eta autonomia handiagoz.</p> <p>8. Atzerriko hizkuntzan eta beste hizkuntzetan eskuratutako ezaguerak eta estrategiak erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testuak idatzeko eta berrikusteko, lagunduta.</p> <p>9. Atzerriko hizkuntza erabiltzea hizkuntza nahiz kultura desberdineko pertsonen arteko komunikazio- eta ulermen-bidetzat, bai eta ikaskuntza-baliabidetzat ere.</p> <p>10. Beste kultura batzuetako elementu sozial, linguistiko nahiz kulturalak identifikatu, errespetatu eta ezagutzeko interesa izatea, eta bere kulturarekin erlazionatzea.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoa, proiektua, ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta,...] **SECUENCIACIÓN DE**

CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...]

<p style="text-align: center;">1. ebaluazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Reading: novel + workbook (<i>Wonder</i>) • Speaking: monologue + dialogue • Logbook • Grammar: review of tenses, passive voice, reported speech • Film: <i>SuperSize Me</i> • Writing: an informal letter • Project: Healthy Habits • Mind map: present perfect <p style="text-align: center;">2.ebaluazioa</p>
--

- **Reading: novel + workbook (*Wonder*)**
- **Speaking: monologue + dialogue**
- **Logbook**
- **Grammar: conditionals**
- **Writing: formal + email**
- **Project- Music:**
 - Choose topic and previous knowledge
 - Look for information making use of advanced search strategies
 - Assess information websites and information itself
 - Make use of learning to learn strategies
 - Prepare presentation with digital resources and learning to learn strategies
 - Make a game in cooperation with other classes

3. ebaluazioa

- **Reading: + workbook (*The Curious Incident of the Dog in the Midnight*)**
- **Speaking: news report**
- **Logbook**
- **Grammar: Reported speech**
- **Film: *52 Jobs in 52 Weeks***
- **Writing: opinion essay**
- **Project: YEARBOOK**

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik] **METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Metodologia honako printzipio hauetan dago oinarrituta

- **Hurbiltze inklusiboa** , ikasle bakoitzak bere hizkuntz trebetasunak ahalik eta gehien garatzeko ,bere amaren hizkuntza zein den inporta gabe.
- **Hurbiltze praktikoa** hizkuntzaren erabilpen sozialean helburu duena,zeinetan behar praktikokoak diren ikasleei komunikarazten
- **Hurbiltze komunikatiboa**
- **Hizkuntzarekiko eta hiztunekiko jarrera positiboa**
- **Ikasteko prozesuari buruzko ikuspen eguneratua**

Horrexegatik material tradizionalaz aparte, irakasleok , IKT-ak ahalik eta gehien klasean erabiltzen saiatuko gara (ordenagailuak, arbel digitalak, soinu grabagailuak eta mikrofonoak DVD-ak etab.) ikasleak motibatzeke eta parte hartzera bultzatzeko.

Honek eramango gaitu metodologia batera, ikasketa prozesua komunikazio proiektuen bidezko ibilbide gisa ulertzen duena , testua ildo gisa hartuz , unitate didaktikoen bidez antolatua eta komunikazio helburuak dituena ; hala ere **lehentasuna** nola-egiteari emango zaio ezagutza teorikoari eman beharrean. Hau nabarmen ikusiko da proiektu lanetan..

Taldekatzeke sistema malgu izango da.,lan motaren arabera: talde handikoa ,bikotekoa edo banakakoa .Hainbat jarduera berezi diseinatuko dira ikasle ahulenei gutxiengo helburuak lortzen eta ikasle onenei aparteko trebetasunak garatzen laguntzeko.

BALIABIDEAK hauexek izango dira:

TESTU LIBURUA: *English Grammar in use* (grammar reference book)

ARGITALETXEA: Cambridge

http://www.bbc.co.uk/schools/websites/11_16/

<http://www.primaryresources.co.uk/geography/geography.htm>

<http://www.nationalgeographic.co.uk/>

http://www.bbc.co.uk/schools/primaryhistory/victorian_britain/

http://www.bbc.co.uk/history/historicfigures/dickens_charles.shtml

<http://www.lovereading4kids.co.uk/>

www.bbc.co.uk/news

<https://www.ted.com>

BESTELAKOAK:

Abesti, gramatika liburu, bideo, webgune, ordenagailu, grabagailu, arbel digital, joko eta aldizkarien erabilera eta beste ELT baliabideak..

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación]
1. EBALUAKETAKO KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK	
<p>1</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Project (individual rubric, group rubric)* ● Reading (rubric) ● Skills (exams) ● Logbook (homework, additional writings, rubric) <p>*Proiektu motzek balio gutxi ago dutenetan azterketak pisu handiagoa hartuko du.</p>	<p style="text-align: right;">%30</p> <p style="text-align: right;">%20</p> <p style="text-align: right;">%20</p> <p style="text-align: right;">%30</p>
2. EBALUAKETAKO KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> ● Project (individual)* ● Reading ● Skills (exams) ● Logbook (homework, additional writings) 	<p style="text-align: right;">%30</p> <p style="text-align: right;">%20</p> <p style="text-align: right;">%20</p> <p style="text-align: right;">%30</p>
3. EBALUAKETAKO KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK	
<ul style="list-style-type: none"> ● Skills (exams) ● News reports (2) ● Project ● Reading 	<p style="text-align: right;">%30</p> <p style="text-align: right;">%20</p> <p style="text-align: right;">%30</p> <p style="text-align: right;">%20</p>
EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisi, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...] CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]	

Ebaluaketa amaieran batzbestekoa egin ahal izateko lan guztiak entregatu behar dira, azterketa guztiak egin eta gutxienez 10etik 3,5eko nota izan behar da bakoitzean. Lehenengo ebaluazioa suspenditzen duten ikasleek hurrengoren bat gaindituz gero berreskuratuta izango dute, **ebaluazio jarraitua** izango baita, eta berdin berreskuratuko da bigarrena. Hala ere, gutxieneko 3,5eko nota izan behar da ebaluazio bakoitzean hau egin ahal izateko.

Aurreko ikasturteko Ingelesa atzeratua izanez gero:

Ikasturteko ebaluaketaren bat gaindituz gero, aurreko kurtsoko ingelesa gaindituztat emango da. Horrela ez bada:

- Hedatze saioetara etorri eta pasatako kurtsoko ingelesa berreskuratu ahal da txosten bat batez gero.
- Maiatzean egingo zaie azterketa. Gaindituz gero, aurreko mailakoa ere berreskuratzen da.

Indartze neurri moduan, batetik, Hedatze Planaren barruan errefortzu klaseak hartu beharko dituzte pendienteek. Bestetik, bi ariketa txosten emango dizkiegu kurtsuan zehar lehenengoa, Gabon aurretik, urtarrilaren bukaeran eginda bueltatzeko; Bigarrena, Aste Santuko oporraldiaren aurretik, maiatza hasieran entregatzeko. **Txostenak derrigorrez egin behar dira maiatzeko azterketa egin ahal izateko. Halaber, txostenak eginda eta esandako epean emanez gero, notaren %10 hortik aterako da. AZTERKETAREN GUTXIENKO NOTA: 4**

Irakasgaia pendiente ez daukaten ikasleak baina indartzea behar dutenak, Hedatze eskoletara etorri ahal dira errefortzu moduan.

OHARRAK OBSERVACIONES

EGOKITZAPENAK

BIGARREN AGERTOKIA

Covida dela eta, ikasleekin bigarren agertokian lan egin behar badugu, programazioan aipatutako helburuak mantenduko dira.

Metodologiari dagokionez, printzipioz zerrendaren arabera bi taldeetan banatuko dira ikasleak. Aste batean talde bat gelan bertan egongo da eta bestea etxetik jarraituko du klasea. Hurrengo astean etxean gelditu den taldea gelara joango da eta bestea etxean geldituko da.

Gelako ordutegia jarraituz, bi taldeekin klase emango da aldi berean. Etxean daudenek Meeten bidez jarraituko dute klasea eta beharrezkoa izanez gero, baliabide gehigarri edota lana classroomen bidez jasoko dute.

Bideodeietan parte hartzea ezinbestekoa da. Ikasleren batek parte hartzen ez badu, hutsegitea bezala kontuan hartuko da. Bideodeietan kamara piztuta izan beharko dute ikasleek.

Azterketak presentzialak izango dira. Gelan dagoen taldeak asteko azken saioan egingo du azterketa. Etxean dagoenak, berriz, gelara bueltatzen den lehenengo saioan egingo du.

Ebaluazio irizpideak direla eta, programazioan aipatutako adierazleak kontuan hartuko dira. Horretaz aparte, beste adierazle bat gehituko da (ea bideodeietan parte hartzen duten ikasleek).

HIRUGARREN AGERTOKIA

Covida dela eta, ikasleekin hirugarren agertokian lan egin behar badugu, ikasleek etxetik lan egin beharko dute.

Klaseko ordutegia jarraituz, ikasleek egin beharreko lana classroomen jasoko dute. Horretaz aparte, astean behin bideodei batean parte hartu beharko dute.

Bideodei horretan azalpenak emango dira eta zalantzak argituko dira. Bideodeietan parte hartzea ezinbestekoa da eta kamara piztuta izan beharko dute ikasleek.

Baliabide gehigarririk behar izanez gero, classroomen bidez helaraziko zaie ikasleei.

Ikasleek irakaslearekin harremanetan jartzeko classroom zein gmail erabili ahal izango dute.

Azterketak ere online egingo dira. Azterketa egiten den bitartean kamara piztuta izatea ezinbestekoa da.

Ebaluazio irizpideak direla eta, programazioan aipatutako adierazleak kontuan hartuko dira. Horretaz aparte, beste bi adierazle gehituko dira (ea ikasleek bideodeietan parte hartzen duten eta ea ikasleek garaiz entregatzen dituzten lanak).